

LIBURUAK

Hiltzea sekulako abentura denean

Sekula Betiko Lurraldea seintzaro galduaren lurra eida. Itzultzaileena ere. Han, denak lausoa dirudi. Errealitatearen eta fantasiaren arteko muga beste inon baino ahulagoa da barruti hartan, jatorrizko testutik itzulira doan ugazabarik bako eremu gantutuan legez. Peterrek betiko iraun gura du ume, halere, umeen ohiko bizimodura itzultzen ahalegintzen da. Lortu ez, ordea. Itzultzaileak ere jatorrizkoaren altzora itzultzeko ahalegin eskergetan dihardu; kontsolamendu eta ondorio, Sekula Betiko Lurraldea baino ez.

Sekula Betikojolasa eta gerra ia gauza bera dira. Itzulpengintzan legez, non berbazko jolasek lantzean odoljario mingarriak eragiten baitzituzte itzultzaileari. Hil hurrean jartzera inokoak ere. Itzultzea ez da jarduera neutroa. Ezin izan, gainera. Kakoker hor nonbait egoten delako, zelatari, erasorako prest. Denboraren joan geldiezina irudikatzen dute Kakok eta krokodiloak; aldia, itzultzailearen etsairik ankerrena.

Nagusi guztiok ezin ikus dezakete Sekula Betiko Lurraldea. Itzultzaileak ere ikusten gaitz gertatzen da sarri. Irakurle batzuk testu itzuliaren aurrean daudela



'PETER PAN'

Egilea: James Matthew Barrie.

Itzultzailea: Julen Gabiria.

Jatorrizko izenburua: *Peter and Wendy* eta *Peter Pan in Kensington Gardens*. **Argitaletxea:** Alberdania / Elkar. **Urtea:** 2005.

ohartzten ez direlako. Argitaratzaile batzuk itzultzailearen izena ezkutatzeko ahalegintzen direlako, itzultzaileak «berridazlea» dela ahaztuta. Ikusezin eskubide intelektualek aldetik ere, itzultzaileari behar bestean aitortzen ez dizkiotelako.

Peterrek lotsabako kukurruru jotzen duen moduan, mundura beldur barik agertuta, itzultzaileak ere hasi dira norgehiagoka. Itzultzea ez delako ekintza errugabea. Testu itzuliek kultura hartzaileko literatur modak, kultur politika, kanonak ere alda ditza-kete.

Pan euskarazko hau osatzen duten bi lanotan itzultzaileak ez da ikusezin gertatzen. Borroka eskergea egin behar izan duelako beste hizkuntzen bidez eskaldunongan erroturiko pertsonaia eta izen ezagunen aurka. Jatorrizkoaren enbaxadore, idazkari egiten da itzultzaileak; haren ikusezintasuna aldeztu dutenek hizkuntza handien hegemonia bultzatzen bide dute. Itzultzaileak ikusgarri egitea, itzulpenaren aurrean gaudela agertzea erresistentzi estrategia moduko bat izango da hizkuntza txikiarentzat. Eta itzultzailearen eskubideak nabarmenarazteko modua. Itzultzea ez da idazlana berririk sortzea?

Peter askatasun betierekoaren ikur ez ezik, adinean aurreratu gaita ez dutenena sindromea bat izateko izena ere bada. Konpromisorik eza ez da inondik inora itzultzearen ezaugarria: itzultzeak etengabe erabaki behar hara dakar. Sekula Betiko Lurraldean Peterrek idorotzen duen askatasun menturazkoa bilatzen eta topatzen du itzultzaileak jatorrizko lana berridazte-rakoan.

Barriek idazle handiak zituen lagunak: Conan Doyle, Woodehouse, Henry James..., ondo irabazi-

tako izen ona. Asko idatzi arren, egun, halere, jende askok ezagun du umeentzat idatzi zuen antzezlan bakarragatik, duela urtebete mendea bete zuen ume horri esker.

Nor dugu Pan hura? Greziako Pan jainkoa? Basatarren leinuko bat? Pan eta Nartziso bat eginik? Gurasorik ezean, Peter bere buruz maiteminduta agertzen da, autista samar inguruan eragiten dituen zirraren aurrean. Itzultzaileak lan itzuliaren guraso gertatzen da. Eta ez sasiko aitaorde edo amaorde.

Julen Gabiria busti beharrean egon da itzulpen honetan, atertut barik hainbat itzulpen aukeraren artean erabakitzen eta ekanduzko ipuingintzaren formetik, ahozko literaturaren baliabideetatik edaten, ozenki irakurtzeko moduko itzulpena lortu du eta.

Peter Panek aldaezin dirau belaunaldiz belaunaldi, atzo egindakoaren ahaztura eta geroak ekarriko duenaren gaineko ezaxola dituelako sari... eta zigor, betiko «umeak alaiak, maleziarik gabekoak eta bihotzik gabekoak diren bitartean». (H)i(tzu)ltzea sekulako abentura izango da, lagunak! **Karlos del Olmo**

han eta hemen biziagotzen ditu paperera ekarritako gertakizunak, lekuak, jendeak eta lanak. Hala ere, literatur asmorik gabe narraitzen du mallorcar artistak Afrikan eman denboraldia, baita ere zuhurtzia handiaz, eta samurtasunez ere bai.

Futbola, liburuak, musika, politika, kultura, haize bolada bortitzak, Paris-Dakar auto-lasterketaren kontrako jarrera sutua, eguneroko bizimodurako erosketen zerrrendak edota ondoraino argazkia egiteko asmoz hurbiltzen zaizkion turistenganak amorruta agertzen dira koardernoa bildutako bere iritzien artean, eta batez ere, margolariaren estiloa eta bere bizitza, bere margolanaren dardara eta espresioa markatu zuten natur paraje zabal handiak, bertako ohi-turak, koloreak eta figurak.

Barcelon 1988an egin zuen Afrikaraino bidaiaren lehenbizikoz, Xavier Mariscal lagun zuela, eta hark zehaztu omen zuen helmuga mapa batean, Niger ibaia. Hurrezkerotik, bere geografia partikularreko espazio berezia den toki hura maiz bihurtzen du bizileku. Bidaiaria eta berritzailea, Barcelon Mali, Mallorca eta Parisko etxe-tailerretan zehar banatzen ditu bere bizitza eta koardernoak. **José Luis Padrón**



'EUSKARA BERE BAITAN'

Egilea: Felix Zubiaga.

Argitaratzailea: Eleiker.

Urtea: 2005.

Psikolinguistak «hizkuntza bera mitoztertzen ez dueno» ezin dezakeela psikoazterketarik egin defenditzen du Felix Zubiagak saiakera honetan: «Gaurko hizkuntzalariak ezin dezake hizkuntzaren sorkuntza ezagutu edo asma», Zubiagaren ustez, «asaben esperientzia baitaratu eta haien iturrietan edan ezik». Gisako saiakera ugari idatzi du Zubiagak.



'MENDAROKO TXOKOLATEA'

Egilea: Iñaki Irasizabal.

Argitaletxea: Elkar.

Urtea: 2005.

Idazkera azkar eta zinematografikoz eta sinesgarritasun handiko pertsonaiekin, nobela beltz bati dagozkion elementu guztiak biltzen dituen narrazio bat osatu du Iñaki Irasizabalek, Elkar argitaletxearen eskutik kaleratu berri duen liburu honetan. Argitara emandako laugarren liburua du Irasizabalek *Mendaroko txokolatea*.



'PIRATEN ESKOLA'

Egilea: Agustin Fernandez Paz.

Itzultzailea: Fernando Rey.

Ilustrazioak: Luis Filella.

Argitaletxea: Edebe-Giltza.

Urtea: 2005.

Wisława Szymborska poloniar idazle Nobel saridunak literaturari buruz idatzitako esaldia du atariko aipu *Piraten eskola*-k: «Hemen, beltza zuriaren gainean, beste lege batzuek dute indarra». Piraten munduaren berezitasunak erakusten dituen narrazio honekin Edebe haur literatur saria irabazi zuen egileak.

Barceloren hitz afrikarrak

Donostiako Kubo aretoak hartzen ditu egunotan Barceloren (Mallorca, 1957) lanak, azken bi urteetan egindako margolan ia guztiak hain zuzen, egunkari honek berak hitz kolore eder handiz bazter guztietara zabaldu zuen berria, maiatzaren 5ean, zehazki. Hemerotekak gezurrik ez.

Juan Luis Zabalak sinatu artikuluan azpimarratu bezala, erakusketak bi sail nagusi ditu: batean, Ferrutx herrian eta Parisen pintatu hogeita bi olio-pintura daude, zuriaz eta beltzaz; bestean, Malin (Afrika) 2004ko abenduan eta 2005eko urtarrilean egindako akuarelazko marrazki koloretsuak eta brontzeko bost eskultura. Eta bigarren arte sorkuntza sail horrek gonbidatu nau gaur eta hemen irakurketa gomendagarri batez berba egitera, Miquel Barceloren *Cuadernos de África* liburuarena alegia.

Gao-ra bidaiaren egina du Barcelon 1988an. «Gao-n naiz eta etxea dut Niger ibaiaren gainaldean», horrela ematen dio margolariak hasiera 1988. eta 2000. urte bitartean Afrikan egindako



'CUADERNOS DE AFRICA'

Egilea: Miquel Barcelo.

Argitaletxea: Circulo de Lectores.

Urtea: 2004.

egonaldi ezberdinetan zehar idatzi egutegia jasotzen duen liburuari. Bitxia bada ere, frantsez idatzia originalean. Txalupan doala idatzia edota basamortuan barrera, gaixorik, pozpozik edota alferkeriarako gogoz dagoela, hausnarketaren ildotik beti ere, artearen bere esperientzia eta haren barne muina arakatzu etengabe. Marrazkiak, zirraborroak, gogoetak, gustuko aipuak XXI. mendeko esanguratsuen artean dagoen artista-ren erretratua marrazten doaz orritz orri, idazle ukitu egokiaz.

«Segu, 92-I-3. Kito etxeko erakuntza lanak. Lanean goizez aritzen naiz lanean eta, arratsaldetan, berriz, Mankalara joan ohi gara. Dantzaldian dabil auzoa eta ezkontza kantuan. Neska bat gerturatzen zait eta nortzuk diren ezkongaiak galdetzen diot. 'Ni ezkontzen naiz', erantzuten dit. 'Eta, norekin?', nire galdera. 'Zurekin'.

»Afaltzeko, artatxiki erako kus-kusa.

»Telefono bilgunera hurbiltzen gara gauze, baina ezin deirik egin. Tope dago jendeaz; zinean hala berean, hitz egiten ari diren elkarrizketak komentatzen dituzte eta, noiz edo noiz, parte hartu ere bai...

»Irakurketak: John Fante. Tximinoak kus-kusa eta platano ustel mordoak jan du».

Egia esatera, Nicole d'Amonville itzultzaileak asmatu du, eta kolpetik dator irakurketa, zorriontsu, atsegin, leun, gozo. Barcelon bere egutegiari ematen dion tonua —eginahal zailena horrelakoetan— bizia da eta bizigarria, bere hizkeraren kolorea